



**ERABAKIA, KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEARENA, [REDACTED]  
[REDACTED] JAUNAK JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEN  
DUENA, GIPIZKOAKO HERRI KIROL FEDERAZIOAK UZTAILAREN 13an  
AIAN IZANDAKO GIPIZKOAKO SEGA TXAPELKETAREN SAILKAPENA  
ALDATZEKO ERABAKIARI DAGOKIONEZ**

---

**Espediente-zenbakia: 35/2014**

**AURREKARIAK**

**Lehenengoa.**- [REDACTED] jaunak errekurtsoa aurkeztu zuen Kirol Justiziako Euskal Batzorde honetan Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak 2014ko uztailaren 18an hartutako erabakiaren aurka; erabaki horren bitartez, uztailaren 13an Aian izandako Gipuzkoako Segatxapelketaren sailkapena aldatu zen.

**Bigarrena.**- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtso hau izapidetzeko onartzea erabaki zuen, Gipuzkoako Herri Kirol Federazioari espedientea eskatzea, baita izapidea ematea ere, egokitzat jotako alegazioak aurkezteko.

**Hirugarrena.**- Era berean, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak probako bi epaileen – [REDACTED] jauna eta [REDACTED] jauna– ziurtagiri bat aurkezteko eskatu zion Gipuzkoako Herri Kirol Federazioari, eta agiri horretan berretsi egin behar zuten 2014ko uztailaren 13ko Gipuzkoako segalari-txapelketaren aktan akats aritmetikoa gertatu ote zen.



Goiko aurrekariei honako hauek aplikatu behar zaizkie:

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.**- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, hala xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.

**Bigarrena.**- Gipuzkoako Sega Txapelketa Aian izan zen uztailaren 13an, eta hasieran [REDACTED] jauna izan zen txapeldun; baina bigarren geratu zenak, [REDACTED] jaunak, uztailaren 14an erreklamazio bat aurkeztu zuen eta, horren arabera, epaileen aktan akats material bat zegoen "sorten" guztizko pisuaren baturan, eta akats horren ondorioz epaileek [REDACTED] jaunari eman zioten lehen postua, [REDACTED] jaunari eman beharrean. Batzordeak akats aritmetiko material hori egiaztatu zuen eta, beraz, uztailaren 18ko erabaki bidez –aztergai dugun errekurtsioa erabaki horri dagokio– lehen postua [REDACTED] jaunari eman zioten, eta bigarrena [REDACTED] jaunari.

**Hirugarrena.**- [REDACTED] jaunak honako frogak hauek aurkeztea proposatu zuen errekurtsioan: 1) Gipuzkoako Herri Kirol Federazioari aztergai dugun txapelketaren gaineko informazio guztia eta espediente osoa bidaltzeko eskatzea; 2) Aiako Udalarari eta txapelketa antolatu zuen erakundeari



txapelketaren gainean duten dokumentazio guztia aurkezteko eskatzea; 3) eta EITB Euskal Irrati Telebistari lehiaketaren grabazio osoa eskatzea.

Eskatutako lehen froga bete zuen Federazioak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea sortu eta arautzen duen 310/2005 Dekretuaren 16.4 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

Eskatutako gainerako frogei dagokienez, eta froga horiek onartu ala ez onartu erabakitzearren –sailkapena aldatzeko arrazoia izatezko akatsa zela kontuan izanik–, Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 80. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, honako eskaera hauek egin zizkion errekurtsogileari: 1) txapelketa zein erakundek antolatu zuen identifikatzea, Gipuzkoako Herri Kirol Federazioa ez baldin bazen; eta, 2) eskatutako frogak prozedurari buruzko erabakia hartzeko zer gertakari garrantzitsuri dagozkien.

1) puntuari dagokionez, errekurtsogileak esan zuen Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak antolatu zuela txapelketa; eta, 2) puntuari dagokionez, “eskatutako frogak txapelketako parte-hartzaileen jarrera eta lana, eta txapelketaren nondik norakoak aztertzeko direla”.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 80.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, prozeduraren instruktoreak interesdunak proposatutako frogak baztertu ahal izango ditu, arrazoitutako ebazpenaren bitartez, bidegabeak direla edo behar-beharrezkoak ez direla nabarmena baldin bada.



Kasu honetan, eskatutako frogak prozedurari buruzko erabakia hartzeko zer gertakari garrantzitsuri dagozkien zehazteko eskatu zitzaion errekurtsogileari, baina ez zuen eskaera bete, eta gainera, honako erantzun orokor hau eman zuen: "eskatutako frogak txapelketako parte-hartzaileen jarrera eta lana, eta txapelketaren nondik norakoak aztertzeke dira".

Errekurtsogileak ez zuen frogatu berak proposatutako probek zertan alda zezaketen aktan akats materiala gertatu zela zioen adierazpena, eta beraz, bidegabetzat jo ziren garrantzirik gabekoak izateagatik, lehen aipatu dugun Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 80.3 artikulua babespian.

Alabaina, errekurtsogileak honako hau aipatu zuen idazkian: "egun horretan nik egindako lanari dagokion pisaketaren emaitzaren fotokopia erantsi dut. Erantsi dudan dokumentua txapelketako epaile nagusiak sinatua da; aitzitik, [REDACTED] jaunak aurkeztutako dokumentuak ez du lehiaketako epaile nagusiaren sinadurarik".

Egia da [REDACTED] jaunaren akta pisaketa-epaileak eta epaile nagusiak sinatuta zegoela, eta [REDACTED] jaunarena, aldiz, pisaketa-epaileak bai, baina epaile nagusiaren sinadurarik ez zuela.

310/2005 Dekretuaren 16.5 artikulua dioenez, "Txostengileak, ofizioz edo alderdi interesatuaren eskariz, beharrekoak irizitako froga-eginbideak agindu ahalko ditu, behin betiko ebazpena eman baino lehen gertaerak goitik behera argitzeko".

Kasu honetan, Kirol Justiziako Euskal Batzorde honen ustez beharrezkoa zen Gipuzkoako Herri Kirol Federazioari probako bi epaileen – [REDACTED] jauna eta [REDACTED] jauna– ziurtagiri bat aurkez



zezan eskatzea, 2014ko uztailaren 13ko Gipuzkoako segalari-txapelketaren aktan akats aritmetikoa gertatu ote zen berresteko; izan ere, akta horri jarraiki txapelketako lehen postua [REDACTED] jaunari eman zioten, [REDACTED] jaunari eman beharrean.

**Laugarrena.**- 2015eko urtarrilaren 28an jasotako idazkian, bi epaileek adierazi dute Federazioak helarazi diela Kirol Justiziako Euskal Batzorde honen erabakia eta “erabat berresten dutela lehiakideek moztutako sorten (partzialak) batura egiteko garaian erratu egin zirela; eta akats aritmetiko hori jasotzen duen akta ere sinatu zutela”

**Bosgarrena.**- Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek idazkia [REDACTED] jaunari helarazi zion, eta haren hitzetan, akta horrek egiari kontra egiten zion baina ez zuen idazkia indargabetzeko frogarik aurkeztu; uztailaren 13ko aktan epaile nagusiaren sinadurarik ez zegoela soilik adierazi zuen. Horri dagokionez, Federazioak alegazioetan onartu zuen txapelketaren batean sinaduraren bat edo beste falta daitekeela, baina horrek ez duela akten baliozkotasuna gutxitzen.

**Seigarrena.**- Egindako frogak aintzat hartuta, Kirol Justiziako Euskal Batzorde honen ustez errekurtsioa ezin da baietsi, txapelketa bateko epaileen jardunak egiazkotasun-presuntzioa duelako eta errekurtsogileak ez duelako presuntzio hori indargabetu, biek berretsi dutenez akats materiala gertatu zela. Aktan epaile nagusiaren sinadura falta izana irregulartasuntzat hartzen da, baina ez du akta baliogabetzen, epaile batek sinatuta zegoelako eta epaile horrek ere berretsi duelako.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

**ERABAKI DU:**

Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak 2014ko uztailaren 18an hartutako erabakiaren aurka [REDACTED] jaunak Kirol Justiziako Euskal Batzorde honetan aurkeztutako errekurtoa ezestea; erabaki horren bitartez, uztailaren 13an Aian izandako Gipuzkoako Sega Txapelketaren sailkapena aldatu zen.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertze errekurtoa jarri ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezakete Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo, errekurtsogileek hala nahi badute, beren bizilekuari dagokion Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 9a

**AGURTZANE ZANGITU OSA**

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea